

TESTU-MOTA: Erreportajea

IKASTETXEA: Orereta Ikastola

MAILA eta GELA: DBH2B

IRAKASLEA: Sara Aramendi Moreiro

DBH2. mailan Errenteriako euskara jendeari buruzko erreportajeak egin behar izan dituzte. Horretarako haien herrian euskararekin harremana duten pertsonak elkarrizketatu dituzte eta elkarrizketetatik ateratako informazioa baliatuz idatzi dituzte testuak. Hona hemen, DBH2B gelako erreportajea, Aiora Martin eta Allende Mendizabalek egina.

EUSKARA HELDUAROAN: BENETAKO ERRONKA

Aiora Martin eta Allende Mendizabal

Euskararen ikaskuntza ez da beti erraza izaten, are gutxiago kontuan hartzen badugu zein adinekin hasi den ikasten. Beste batzuk horren inguruan jakin dezaten, helduaroan euskara ikasi eta transmititu duten pertsonen testigantza kontatu nahi dugu. Hau guztia, Franco hil ondoren bizitu zuten. Gema Tuñon izan zen bizi izan zuen pertsonetako bat.

ESPERIENTZIA DESBERDINAK IKASTERAKOAN

Hizkuntza berri bat ikasterakoan, bakoitzak bere zailtasunak eta erraztasunak edukitzen ditu. Gema Tuñon Errenterian bizi den emakume bat da eta esperientzia bizi izan zuen. Gema Tuñonek azaldu duenez, euskararekin bere lehen harremana haurtzaroan izan zuen, bere amak eta amaren anaiak beraien artean euskara hitz egiten zutelako. Aldiz, berarekin gaztelaniaz egiten zuten, mojen eskolara joaten zelako eta han erdaraz egiten zutelako. “Zerbait banekien, baina ez hitz egiteko moduan” jakinarazi digu Gemak.



Helduaroan etorri zen benetako aldaketa. Bere alabak jaio zirenean konturatu zen haiek ikastolara eraman nahi zituela eta horrek ere berari euskara ikasteko beharra sorrarazi ziola adierazi du. Orduan hasi zen bere senarrarekin ikasten. Hasieran, Inasito Albisturrengana joan ziren hiru urtez, eta gero AEKn jarraitu zuten. Ikaste-prozesu horrek etxean euskara gehiago hitz egitea sustatu zuen.

Gaur egun, Gema Tuñon nahiko ondo moldatzen da euskara hitz egiteko eta ulertzeko garaian. Azkenik, azpimarratu du bere egoera ez zela bakarra izan. Garai hartan jende askok bizi izan zuen antzeko esperientzia, gurasoek euskara jakin arren, haurrek hizkuntza ez ikastea ohikoa zen, euskara debekatuta baitzegoen. Horren ondorioz, etxeetan euskara erabiltzen zuten, baina kalean denak gaztelaniaz aritzen ziren.

AGINTARIEN ERAGINAK

Gemak ez zuen gaur egun Euskal Herriko haurrek duten haurtzaroaren antzerakoa eduki, oso desberdina izan zen. Alde batetik, gaztea zenean ez zuen aukera izan euskara ikasteko, eskola erlijioso batera joan behar izan baitzen, eta bertan, gaztelaniaz irakasten zuten, besterik ez, Francoren eraginez euskara debekatua zegoelako. Bera bezala, beste haur asko joan ziren horrelako eskoletara, Gemak esan zigun bezala, oso haur gutxi zeudelako euskara ikasteko aukera zutenak. Horrek ez zuen galarazi euskal kulturarekin erlazioa edukitzea, bere gurasoek txikitan ikasi baitzuten eta etxean esaldi edo hitzak behin eta berriro entzunda, hitz solteak ikasten hasi zen, “hor”, “joan” eta modu horretako hitzak.

“Nik ikasi ondoren, nire ama oso pozik zegoen”



Gemaren gurasoek euskaraz hitz egiten zutenez, etxean musika euskaraz entzuten zuten, baita ipuin eta liburuak irakurri ere. Horrek guztiak, gero, ikasterako garaian, asko lagundu zion, hitz eta esaldi asko ezagunak egiten

zitzaizkion eta. Gema Tuñonek honako hau aipatu digu: “Nik ikasi ondoren, nire ama oso pozik zegoen, eta oso harro esaten zuen nire alabak nik baino hobeto hitz egiten du”.

GURASOEN LANA

Emakume honek, beste hainbatek bezala, seme-alabak edukitzerakoan eta euskara berriz normalizatu zenean, bere alabei euskara erakusteko beharra sentitzen zuen. Horretarako, txikitatik ikastolara apuntatu zituen, gerora zailtasunik ez edukitzeko.

“Oraingo gazteek, txikitatik ikasten dutenez, ez dituzte guk izandako zailtasunak”

Aldi berean, etxean euskaraz hitz egiten hasi ziren. Gemak aipatu digun bezala, asko lagundu zion bere seme alabek denbora luzea pasa izana bere ama eta bere senarraren amarekin, konturatu

gabe euskaraz hitz egiteko, bi emakume horiek txikitatik ondo ikasi zutelako. Garai hartan, ez ziren heldu asko izan erraztasun horiek eduki zituztenak beren seme-alabei euskara erakusteko garaian, horregatik askok ezin izan zieten euskara ikasten lagundu.

Azkenik, Gema Tuñonek pentsatzen du oraingo gazteek txikitatik ikasten dutenez euskara, ez dituztela beraiek izandako zailtasunak.

Laburbilduz, hizkuntza bat ikastea ez da inoiz lan erraza izan, eta are gutxiago garai horretan debekatuta egon bada. Horregatik, beti euskara mantendu eta ikasteko ahalegina egin behar dugu, beste urte ugari mantentzeko.